

# NIK BERA BEZALAKO BAT NAHI DIAT

Marc Egea Eusk: Ele txera

*Hamabost urtez ezkontuta egon ondoren, **LUZ** dibortziatu egin da. Gaur, merkataritza-zentro batean paseatzen ari zela, senarra (senar ohia) aurkitu du bikotekide berriarekin: hemeretzi urteko neska bat. **LUZ**ek bazuen senar ohiaren eta neska gazte baten arteko harreman horren berri, eta naturaltasunez onartu zuen, baina elkarrekin ikusteak, han, espero ez duen eragina eragin dio.*

**Luz:** (Senar ohiari, bakarrik, han bertan) Uste duk badakiala zer pentsatzen ari nauan: lekuz kanpo zagoala, egotea ume... hemeretzi urteko neska batekin, hire adinarekin... -adina bikoizten diok... edo pixka bat gehiago, ezta?-, hor, bata besetari musutxoak ematen, zirri egiten, disimulatu gabe... Pentsatzen diat mundu guztiak esaten ari zaiana duala... "Hire alaba izan zitekean"... Alaba bat izan bahu... Alaba bat izan bagenu... Zenbat izan duk? Hamabost urte ezkontuta... gehiago... zenbat egon gintuan lehenago? Hiru urte, ezta?... Hiru urte gehiago elkarrekin ibiltzen... Baina... gauza baten eta bestearen artean -hire lana, nire karrera, nire lana, tenisa eta padela, nire gimnasia eta yoga...-, ba, hori... gauza batzuen eta besteen artean... ez zuala denborarik egon alabarentzat, ezta semearentzat ere - ez aitaginarrebentzat, zorionez -, ezta beste gauza batzuentzat ere..... Ikusi behar duk zein azkar gertatu duan dena eta... urte asko izan dituan arren, bazirudik... ez diala ia ezertarako denborarik eman... nahiz eta oso lanpetuta egon gintuan egiten... ez zakiat..., egia esanda, mundu guztiak egiten diana eginez, izatez mundu guztia eta gu ez gintuan oso desberdinak izan, eta... Imajinatzen diat hire amak zer esaten ari dian... nola dik izena? Clara, ezta? - Clarari buruz. Ui, imajina zezakeat: inoiz ez duala baloratzen duana, ez haizela konstantea, berriaz azkar nekatuko haizela, apetatsua haizela, umea besterik ez duala... Ikusten ari banintz bezala... eta.. pentsatuko duk ni ere... Ni ere ados nagoala... Pitxi bat duk, benetan! A ze gaztea. Ze polita. Beno, ez zakiat zer esango dian jendeak, zer pentsatuko dian mundu guztiak, baina, egia esan... Berarekin ikusten haut eta... Ikusi berri zaituztet, bat-batean, noski, ezin izan diat pentsatsea... pentsatzea ekidin...: Malmutz arraioa, non aurkitu duk? Nik bera bezalako bat nahi diat. Izan ere, Clararen adineko batekin ari nauk neure burua imajinatzen, eta kitzikatzen hasi nauk...

Ele txera  
munduarek zabalduz



# NIK BERA BEZALAKO BAT NAHI DIAT

Marc Egea Eusk: Ele txera

**OHARRAK:** Bakarrizketa honen interesa hauxe da: desadostasuna adierazteko monologoa dela dirudi, baina, berez, guztiz kontrakoa da: konplizitate-monologoa da.

Lehen begiratuan, badirudi **LUZ**ek senar ohiari gaitzespena adieraziko diola -adierazten ari dela-. Eta, bakarrizketaren letrari bagagozkio, horrekin bat dator: emazte ohi baten diskurtsoa izan liteke, minduta dagoena, ez baitu onartzen senarra hemeretzi urteko neskatila batengatik aldatu duenik. Eta, kasu horretan, **LUZ** sutsuki mintzatuko litzateke, eta ausarkeriaz hitz egingo luke, eraso eginez, haserrea handituz joango litzatekeelarik, aurpegiatzeko arrazoiak burura iritsi ahala.

Baina hori ez da bakarrizketa honetan gertatzen dena. Kasu honetan, **LUZ** ongi dago bere dibortziatu egoerarekin, eta ez du senar ohiari aurpegiatzeko ezer, berarekin ondo portatu baitzen beti. Eszena honetan gertatzen dena da, senar ohia neska gazte batekin musukatzen ikustean, irudimena zitzu bizian hasi zaio lan egiten eta hemeretzi urteko mutil batekin bere burua ikusi duela, haiek bezalako maitasun eta desinhibiziozko jarrera batean, hitz egiten ari den heinean, irudi hori biziago bihurtzen ari zaio, eta gero eta hobeto iruditzen zaio. Senar ohiari esan ezin dion arte: "Malmutz arraioa, non aurkitu duk? Nik bera bezalako bat nahi diat."

Horregatik hitz egingo du astiro -oso poliki-, batere haserterik gabe, esaldiak nagitasunez lotuz, sakabanatuta: gauza bat pentsatzen ari delako beste bati buruz hitz egiten saiatzen denean.

Bakarrizketaren alderdirik interesgarriena da aktoreak, antzezten duenean, hura maneiatzea, halako molde non, hasiera batean, badirudi egoera ohiko desadostasuna dela. Eta, pixkanaka, lagun arteko azken esaldi hori ahoskatzean agerian geratzen den konplizitate-diskurtsoa dela azalduz joan dadila.

Monologoaren benetako zentzua ez traizionatzeko: oso poliki hitz egitea da, etenaldi handiekin.

Ele txera  
Hondolude zabala, luz.

